



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko agorrilaren 3an, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, GOICOCHEA Iñaki HEGUY Antton.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2023ko uztailaren 28a

Afitxatze eguna : 2023ko uztailaren 28a

### 1. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

#### *(4.2.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio, denbora ez osoko behin behineko animatzaile laguntzaile enplegu baten sortzea eskola egunetako eguerdietan haurrak jantokian zaintzeko.

Enplegua 2023ko irailaren 4tik 2024ko uztailaren 5a arte sortuko litzateke.

Asteko lanaldia 4,87 orenekoa litzateke, urte oso batera eramana.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela eguneratuko da:

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

**ERABAKI DU** - 2023ko irailaren 4tik goiti, lurralde animazio laguntzaile lanpostu ez iraunkor eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 4,87 orenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

**ONARTU DITU** Auzapezaren proposamen guztiak,

**ZEHAZTU DU** kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko agorrilaren 3an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/08/11n publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/08/11n.